

Inon ez dauden liburuak

Angel Erro

1. Satira egiteko

Liburuak asmatzeari ekin zion lehena, asmo satirikoarekin, François Rabelais izan zen, bere Gargantua eta Pantagruel lanean. Garaiko irakasleen bizkar barre egiteko gogoaz, Parisko San Viktor liburutegian omen zeuden liburuen zerrenda osatu zuen. Alegiazko idazleen atzean orduko egile benetakoak zeuden, eta izenburuek beren idazkiez eta joerez trufa egiten zuen; modu berean erlijio eta irakaskuntza kontuak ere agertzen ziren.

Liburu horietariko batzuk ondokoak dira: Lizentziadun ikasleentzako ipurdi miatzeta aurreratua, Bragueta iuris (Braguetaren legea); Jabolemo-ren De cosmographia purgatorii (Purgatorioko kosmografiak). Rabelaisen obra guztian bezala, hemen ere eskatologiara jotzen dutenek toki berezia dute, hala nola Tartareto-ren De modo cacandi (Kaka egiteko metodoak) edo Hardouin de Graetz maisuaren Ars Honestae Petendi in Societate (Jendartean prestutasunez puzker egiteko artea).

Rabelaisen aurkikuntza Europa osora hedatu zen, eta oso imitatua izan zen, alegiazko liburutegien kopurua gora eginik. Satira politikorako tresna ezin hobe bilakatu zen, eta, adibidez, Frantzian, Henrike IV.aren agintetik aurrera, ondoko katalogoa aurki dezakegu, besteak beste, *Extrait de l' inventaire qui s' est trouvé dans les coffres de M. le chevalier de Guise* (Gisa Jaun Zaldunaren kutxetan aurkitzen den inbentarioaren zatia). Hango izenburuen adibideak: Karlos Xaloaren bizitza, ezjakintasunaren balioari buruzko tratatu batekin, Souvray jaunak Erregeren heziketarako eginga edo Egiatzapen matematikoa, zeinaren bitartez egileak, bere urdaila probatzat hartuta, egiaztatzen baitu naturan hutsa existitzen denik.

Genero horren jarraitzaile aipagarrien artean John Donne dugu. Gazte denboran idatzi zuen ezinezko liburuen bere zerrendatxoa, latinez (*Catalogus librorum aulicorum incomparabilium et non vendibilium*, alegia, Gorteko liburu paregabe eta salezinen zerrenda) baina 1650ra arte ez zuen argia ikusiko. Satira politikoa, erlijiosoa eta literarioa egiten du, umorerako joera nabarmenagoarekin. Bertan zerrendatzen diren bi liburu aipatzearen, Pitagoras judu-kristaua, 99 eta 66 zenbakiak, orrialdeari buelta emanez gero, berdin-berdinak direla probatzen duena, John Picus txit serafikoak idatzia. Ikusten denez, erudizioaren demasak salatze gogoak datza honelako azpian. Beste bat. San Bonaventura-ren Hamar manamenduetatik ez partikula kentzeaz eta berau Apostoluen Kredora gehitzeaz. John Donneren lan txiki hau, gezurra dirudien arren, garaiko erudituek entusiasmoz hartu zuten.

2. Bibliomania

Alegiazko katalogoak, hasiera batean, izaera politiko, sozial edo filosofikoko satira eta erasoak ziren arren, pixkanaka bi gauza ezberdinetara jo zuten. Alde batetik, gizarte gero eta irakurri zaleago bateko nobelistek pertsonaiak ezaugarritzeko baliabide moduan erabili zuten. Tristram Shandyk edo Sherlock Holmesek zer irakurtzen zuten edo, batez ere, beraiek zer liburu idatziak zuten zehazteko orduan, egileek izenburuak asmatzera jo zezaketen.

Bestetik, bibliofiloek berek biblifiloentzat sortutako amarru bilakatzera ere jo dute honelako izenburu zerrendek. Azken horren kasurik ezagunena Fortsas Katalogoarena da: 1840an Europako liburu bildumazale garrantzitsuenek konde baten liburutegi txiki baina arras interesgarriaren enkantearen berri izan zuten, postaz, salgai jarriko ziren 52 liburukien katalogo bat beren etxeetan jaso ondoren. Fortsas kondeak munduan ale bakarra zuten liburu katalogatu gabekoen bilduma bat omen zeukan, eta horrek oso interesgarria egiten zuen enkantea. Azkenean dena iruzurra zen, enkante egunean bertan jakin zenez, liburuzale batek antolatu txantxa handi bat; baina, ironikoki, gaur egun gezurrezko 132 katalogo horiek beraiek bihurtu dira bildumazaleen helburu preziatu.

Azkenean inork ere eskuratu ezin izan zuen liburuen artean, bat aipatzearren, *Évangile du citoyen Jesus*, purgé des idées aristocrates et royalistes et ramené aux vrais principes de la raison, par un bon sans-culotte zegoen; kondeak katalogoan argitzen zuen bezala, Joseph Lebon itzaltsuak egina zen, Errepublikako hirugarren urtean, eta ez zen Toucquet-en ebangelioarekin nahastu behar.

3. Eruditu iruditu

Halako asmakuntzen etekin literarioa gaur egungo egile batzuegan topa dezakegu, Jorge Luis Borges eredia izan daiteke, fikzioaren eta errealitatearen arteko mugan alegiazko liburutegi paralelo bat osatzeko tenorean, maiz jakinduria bera antzetzuz. Horretan, Lovecraftengan eta Nekronomikoi eta antzeko liburuetan aurkitzen du oinarria. Dagoeneko ez da apokrifoa aipatzearekin konformatu ahal; beraren edukia eta testuingurua literatur xedearen gunera eramaten da. Dugunaz aparteko tradizio bat asmatzea da kontua. Hor ditugu, esaterako, Pierre Menarden obraren gaineko artikulu itxurako ipuina, eta Borgesek asmatzen dituen hainbat eta hainbat erreferentzia miragarri. Hain zuen berea joera hori, ezen ipuin baten hasieran Robert Burtonen Melankoliaren anatomia aipatuta ikusi zutenean, askok orduan ezagunegia ez zen izenburu biribileko liburu hura Borgesek berak asmatukotzat hartu zuten. Esan gabe doa joera horrek jarraitzaile asko izan zuela, baita gurean ere, ezinezko liburutegien apalak are gehiago zamaturik.

Inoiz idatzi, irakurri, argitaratu eta aurkitu gabeko liburu asmatzaile ospetsuen artean, Thomas Pynchon dugu. Haren eleberrietan aipatzen direnen xedeak Rabelaisen asmo umorezko eta satirikotik hurbilago dirudi. Ironiaz betetako bere izenburu batzuk: egile izengabearen *How I Came to Love the People* (Nola iritsi nintzen jendea maitatzera); Deleuze eta Guattari-ren *The Italian Wedding Fake Book* (Italiar ezkontzen liburu faltsua); Mitchell Prettyplaceren *King Kong*, 18 liburukitan (ikerketa definitibo bat); edo *The Wisdom of the Great Kamikaze Pilots -with illustrations by Walt Disney-* (Kamikaze pilotu handien jakinduria, Walt Disney irudiztatua).

Liburutegi ikusezinetik hainbat ale

1 ' Nekronomikoia ' . H. Ph. Lovecraft-ek hainbat nobelatan zehar deabrueri deitzeko formula magikoak zituen liburu bati erreferentzia egin zion. Hildakoen liburu hark, *The Necronomicon*, espazio-denbora erlazioaren ezagutza berezi bat iradokitzen emanen luke. Liburuz liburu, tantaka, hango pasarte batzuk ematen zituen, eta eskuizkribuaren nondik norakoa marrastu zuen; hain modu sinesgarrian non irakurle asko liburua benetan aurkitzen saiatu izan diren, gordeta omen daukaten liburutegietara joz. Egilea Abdul Al-Hazred izanzen zen (izena, dirudienez, hitz joko bat da: *All has read*, dena irakurri duena), eta hainbat gorabehera ondoren itzulpen bateko lau kopia baino ez zituzten gorde,

Parisko Liburutegi Nazionalean edota Estatu Batuetako Miskatonic Unibertsitatean. Liburua (noski) ez da existitzen, baina horrek ez du saihetsi historiako bilatuenetarikoa izatea. Bizi, interneten bizi dela esan daiteke, hainbat webgune daude liburuari zuzenduak. Liburu honekiko edo eragin duen fenomenoarekiko pasioak liburuzain bat baino gehiago eraman du Nekronomikoiazen fitxa bibliografikoa beste liburukoen artean sartzera, liburu honen benetako existentziari buruzko lainoa handiagotuz.

2 ' Kolektibismo oligarkikoaren teoria eta praktika ' . George Orwell-en 1984 eleberriaren giltzetakoa da obra hau, Emmanuel Goldstein-i egotzia. Goldstein, Alderdiko militante ohia, estatuko lehen etsai izendatu du erregimen totalitarioko propagandak, Anaia Handiaren lidergoaren kontra egiteagatik. Liburua, maiz liburua soilki deitua, modu klandestinoan ibiltzen da eskuz esku, estatuaren kontrako heresia guztien bilduma delarik. 1984-an liburuko bi pasarte irakurtzen dira, eta bere hiru ataletatik bi izendatzen dira: Ezjakintasuna indarra da eta Guda bakea da, biak Alderdiaren esloganak. Liburu osoaren laburpen epigramatikoa egiten du une jakin batean pertsonaietarikoa batek: Etorkizunaren irudi bat nahi baduzu, imajinatu bota bat gizaki baten aurpegia, betiko, kolpatzen.

3 ' Gero ' -ren bigarren partea. Euskaraz, Axularrek Gero-rentzat agindutako bigarren partea sar genezake idatzi ez diren liburuen zerrendan. Egile askoren irudimena eragin du balizko bigarren parte horrek (filologoek uste badute ere dugun edizioan bi parteak batera daudela). Horri etekin literarioa ateratzen azkena Aritz Gorrotxategiren Kearen truke eleberria litzateke. Jon Alonsok Katebegi galdua-n, berriz, Frantzisko Xabierkoak ondutako euskarazko idazki baten berri eman zigun. Euskarazko liburu eta egile apokrifoen soka luzea da. 4 ' Asteroide baten dinamika ' . Sherlock Holmesen etsai amorratua den Moriarty irakaslearen liburua da. Holmesek berak dionez, oso liburu ospatua da, matematika puruetako goi lurraldeak hain modu bitxian ukitzen duelako, ezen inongo zientzialaria ere ez den kritikatzera ausartu. Conan Doyle egileak ez du liburuaren edukiaz aztarnarik ematen; hala ere, Isaac Asimov, bere The Ultimate Crime ipuinean, Moriartyren saiakerak zertaz ziharduen espekulatzeramenturatzen da. James Moriarty ez da Doylearen eleberrietan idazten duen bakarra, bai Holmesek bai Watson doktoreak ere beren bibliografía ohoretsua dute. Lehenak Malingeren (Gaixoarena egitea), Lassoren motete polifonikoei buruzko saiakera bat, On the Typewriter and Its Relation to Crime (Idazmakina eta hilketarekiko bere harremanaz) eta Whole Art of Detection ezinbestekoa idatzi ditu. Watsonek, bere lagunaren abentura guztiak jasotzeaz gain, Sumatrako arratoi erraldoiari buruzko saiakera egina du.

5 ' Tlön-go Lehen Entziklopedia ', IX. liburukia. Jorge Luis Borgesek Tlön, Uqbar, Orbis Tertius ipuinean ematen digu liburu honen berri, berak Bioy Casaresekin batera kasualitatez aurkitua, Entziklopedia Britainiarraren apokrifo bat arakatzen ari diren bitartean. Tlön planeta alegiazkoa hainbat belaunaldik isil-gordeka asmatu duten unibertso guztiz idealaren fruitua da (materialismoa, adibidez, heresia da), ' Tlön-go Entziklopedia ' -n irudikatua agertzen da kosmos honen indarra oro-besarkatzailea da, Borgesiren errealitateari buruzko zalantzak edukitzera eramateraino, mundu honetako intelektual hoberenek ideiatu duten hori benetako munduaz jabetzen ari dela ere susmoa egiteraino.